

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

3762

AGINDUA, 2025eko uztailaren 8koa, Hezkuntzako sailburuarena, Legazpin (Gipuzkoa) dagoen «Olazabal» Bigarren Hezkuntzako Ikastetxearen izen espezifikoa aldaketa onartzeko dena.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 111. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeen izen generikoa eguneratzen duen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2016ko otsailaren 4ko Aginduaren I. eranskinean ezarritakoaren arabera, derrigorrezko bigarren hezkuntza, batxilergoa eta lanbide-heziketa eskaintzen dituzten ikastetxe publikoak Bigarren Hezkuntzako Institutu deituko dira.

Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren 13. artikuluan ezartzen denez, ematen dituzten irakaskuntzei dagokien izen orokorraz gain, ikastetxeek izen espezifiko bat izan behar dute.

Legazpiko (Gipuzkoa) «Olazabal» Bigarren Hezkuntzako Ikastetxearen izen espezifiko aldatzeko eskabidea aztertu da. Ikastetxearen Ordezkaritza Organo Gorenak erabaki zuen hori 2025eko maiatzaren 21ean, ikastetxearen autonomia-eremuko azken arduraduna den aldetik, Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legearen 31. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Espediente hori ezarritako prozeduraren arabera izapidetu da, indarreko arauak eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio, eta horretan eskumena duen Hezkuntzako Ikuskaritzak aldeko txostena egin du, Jaurilaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. artikulua eta Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen azaroaren 19ko 381/2024 Dekretuaren 4. artikulua esleitutako eskumenak baliatuz.

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— Legazpin (Gipuzkoa) dagoen «Olazabal» Bigarren Hezkuntzako Ikastetxearen izen espezifiko aldatzea onartzea; aurrerantzean, «Olamendi» izango du izena eta, 2025-2026 ikasturtetik aurrera, EAEko Unibertsitateaz kanpoko Ikastetxeen Erregistroan inskribatuta geratuko da erregistroko datu hauekin:

Ikastetxearen kodeak: 012117 (EAE) eta 20007680 (unibertsala).

Izen orokorra: Bigarren Hezkuntzako Ikastetxea.

Izen espezifiko: «Olamendi».

Helbidea: San Martin auzoa 16.

Udalerria: Legazpi.

Lurralde Historikoa: Gipuzkoa.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia

2025eko irailaren 5a, ostirala

Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 8a.

Hezkuntzako sailburua,
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.